



Lehiaren Euskal Agintaritzak hauteman duenez, beherapenak egiteko debekuak enpresa askatasunaren eta lehia librearen eskubidea murrizten du

LEA/AVCren iritziz, merkataritza txikiari (400 m² arteko establezimenduak) edukiera %30era murriztea eta bezeroen artean gutxienez bi metroko distantzia gorde beharra, bateragarria da merkataritza promozioekin eta beherapenekin

BILBON, 2020ko maiatzaren 14an / Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA/AVC) iritziz, ezarritako segurtasun neurriak betetzen badira, merkataritza txikirako beherapenak eta promozioak era automatikoan debekatzea, arautegiaren helburuari erantzuten ez dion eta bertan hitzez hitz jartzen denarekin bat ez datorren murrizketa da.

Bere posizionamenduan, LEA/AVCk argi uzten du "Normaltasun berrirako trantsiziorako planaren 1. fasean nazio mailako murrizketa jakin batzuk malgutzera zuzendutako Osasun Ministerioaren maiatzaren 9ko SND/399/2020 Aginduaren" helburua babes eta segurtasun neurriak gauzatzea dela, eta baita establezimenduetan pertsonen pilaketak saihestea ere, baina ez dituela, inolaz ere, beherapenak debekatzeko.

LEA/AVCk, Euskadin lehia librearen baldintzak bermatzera zuzendutako aholkuak emateko eskumenak dituen erakundeak, argitu duenez, Ministerioaren Aginduaren 10. eta 14. artikuluetan jasotzen diren neurriak, edukiera osoa %30era murriztea edo pertsonen artean gutxienez bi metroko tartea egon beharra, pertsonen gehiegizko kontzentrazioa saihestera daude zuzenduta, 5. artikuluan jasotzen diren terminoetan, eta beherapenen, eskaintza edo promozio gisa egiten den salmentarekin bateragarriak izan behar dira.

Lehiaren Euskal Agintaritzari buruz

Lehiaren Euskal Agintaritzaren, administrazio izaera duen erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Sailari atxikia, eta erakunde eta funtzio autonomia du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkaturako lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduerak ekonomikoari dagokienez.